



## **Autonomia Erkidegoen eta Lankidetzaren XIII. Topaketa adierazpen bateratu batekin amaitu zen Bilbon**

Bilbon bi egunez bilduta egon ondoren, Estatuko 17 Autonomia Erkidegotako lankidetzako ordezkari tekniko eta politikoez ondoren adierazten den dokumentua adostu dute; dokumentuak **garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren ezaugarri bereizgarriak** biltzen ditu eta bere **erronka eta aukera batzuk** identifikatzen ditu.

### **AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA LANKIDETZAREN XIII. TOPAKETAN ATERATAKO ONDORIOAK**

#### **Bilbo, 2020ko otsailak 19-20**

Garapenerako nazioarteko lankidetzaren jaioren zegoen munduaz oso bestelako mundu batean bizi gara: konplexuagoa da, heterogeneoagoa. Hainbat paradigma (iparra-hegoa, emaila-hartzailea) ez dira baliagarriak gaur egun. Munduak erronka zaharrei eta berriei egin behar die aurre (pobrezaren eta gosearen aurkako borroka, klima-aldaketa, migrazioak, desparekotasunak...). 2015ean Nazio Batuen Batzar Nagusian ezarri zen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak mundu konplexuago horri erantzuten dio eta aukera ona da ekintza eraldatzaileagoa bultzatzeko, dimentsio ugari barnean hartzen dituen, erritmo desberdinetan aurrerantz egitea ahalbidetzen duena eta agente-aniztasun handiagoa erakartzen duena. 2030 Agendak, baita ekintza humanitarioari, hezkuntza eraldatzaileari, klima-aldaketari, feminismoari eta hiri-agendari lotutako agendek ere, lokalizazioaren garrantzia eta udalerrien eta eskualdeen laguntzaren nabarmentasuna azpimarratzen dute. Esparru horretan, garapenerako lankidetzaren deszentralizatuak bere ikuspegiak, praktikak eta emaitzak berritzeko eta indartzeko aukera berriak aurkitzen ditu.

Lankidetzaren deszentralizatuak 30 urtetik gorako ibilbidea du. Urte horietan bilakatzen joan da eta, aniztasunetik, ezaugarri bereizgarriak garatzen joan da, eta horien artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Garapenerako lankidetzarako prestasun handiagoa, interes nazionalerako logikekin lotura txikiagoa dagoelako, eta horrek aukera ematen dio ahalegin politiko, tekniko eta finantzarioak gai sentzibleetarantz –adibidez giza eskubideen babesa– eta eragin politikorantz bideratzeko.
- Lurralde-ikuspegia, garapen-proposamenen ikuspegi bateratuagoa ahalbidetzen duena. Era berean, tokikoa denaren hurbiltasunak askotariko agenteak modu egituratuan mobilizatzea errazten du.

- Horizontaltasun handiagoa, jakintzaren transferentzia eta elkarrekiko ikaskuntza ahalbidetzen dituena. Era berean, guregan intentsitate desberdinarekin eta erantzukizun bereziekin eragina duten arazo komunak konpontzeko lan bateratua errazten du.
- Herritarrekiko hurbiltasun handiagoa; horrek gizartearen sormenaz baliatzeko eta tokiko eta maila globaleko erronkekin konprometituago dauden herritarrak sentsibilizatzen eta sustatzen laguntzeko ahalmen handiagoa ahalbidetzen du.
- Gizarte zibileko erakundeekin (GGKEak eta tokiko bazkideak) lankidetzan jarduteak duen garrantzia, horrek herrialde guztietan eta komunitateetan gizarte zibilen sendotzean oinarritzea baitakar.
- Egiteko modu desberdinak, pertsonen, praktiken eta ikaskuntzen elkartrukea garrantzitsua izanik.

Gainera, lan-esperientzia handiagoa dagoen hainbat eremu identifikatu dira: deszentralizazioa, GJHen lokalizazioa, generoa, aniztasunen inklusioa, giza eskubideak eta gobernantza demokratikoa, ura eta saneamendua, elikadura, eta herritartasun globalerako hezkuntza.

Laburbilduz, esan daiteke lankidetzara mota horretan lankidetzara bideratutako zenbatekoak bezain garrantzitsuak direla artikulazioa, agenteen inplikazioa eta beharrian zehatzekiko arreta.

Testuinguru berriak, bestalde, hainbat erronka eta aukera planteatzen ditu, eta horiek aztertzen hasi dira:

- 2030 Agendaren deia errealitate bihurtzea ahalbidetuko duten kudeaketa-tresna zehatzak sortzea: aliantza berriak, berrikuntza, agenda sektore eta agente ez konbentzionaletarantz hedatzea, edo garapenaren finantzaketa berria.
- Gobernuaren barnean ere 2030 Agenda sustatzea: garapen jasangarrirako politiken koherentzia, ekintza multisektoriala edota tokiko arazoaren dimentsio globala sustatuko duten aldaketen bideratzaile izatea.
- Harreman horizontaletan eta elkarrekiko ikaskuntzan sakontzea.
- Lankidetzara deszentralizatuaren balioa eta ekarpena berrestea, hausnarketa sendoa eta ebidentzian oinarritzen dena abiapuntutzat hartuz. Narratibak berritzea eta lankidetzara gizartera eta sektore gazteenetara hurbiltzea.
- Ebaluazioan sakontzea, gure praktiketatik ikasteko, gure politiken berri emateko eta herritarrei kontuen berri emateko.

*Bilbo, 2020ko otsailak 21*

